

## Markes baten pare Matusalen baino gehiago bizitzeko modua



Genesian idatzita dagoenez, **Matusalen** 969 urte bizi izan zen, eta munduko gizonik zaharrena bihurtu zen Uholde Handiaren aurretik. Batzuek diote ilargiaren eta eguzkiaren zikloen arteko nahasketa bati zor zaiola adin handi hori, eta 72 urte bizi izan zela benetan; nolahi ere, miresgarria da hori ere, garai hartan urte gutxi (30 urte) bizi zirela kontuan hartuta.

Gizakion **bizitza-luzera** XIX. mendean hasi zen, eta harrezkero handitzen joan da etengabe, zientziaren aurrerapenek lagunduta. **Gaur egun jaiotzen diren haurrak mende bat, 100 urte, biziko dira, eta arazo bat edukiko dute pentsioekin:** 2050 urterako, erretiratu bakoitzeko bi lagun bakarrik ariko dira lanean, gure herrialdean.

Haur horietako gehienek egun existitzen ez ziren lanak edukiko dituzte. Galde iezaiozu zure amari edo amonari SEO kontsultore, Community Manager edo Big Data aztertzaile bati buruz. Horietako askok **ekonomia informaletik edo ezkutukotik** kobratuko dute euren diru-sarreraren zati bat (gaur egun diru-sarreraren %23 dira Espainian).

Egoera hori are larriagoa da emakumeen

artean, gizonetako baino soldata txikiagoa dutelako eta haiek baino urte gehiago bizi direlako.

### BIKAINA da aurreztea

Espainian, etxebizitza bat erosteko aurreratu dugu. Baina **lasaitasuna edota errentagarritasuna edukitzeko ere aurreztu behar dugu, koltxoi finantzario bat edukitzeko eta inolako arazorik gabe erretiratzeko.** Apunta ezazu:

- **2030ean**, pentsio publikoak soldataren %60 izango dira, gehienez ere.
- **2050erako**, gaur egungo gutxieneko pentsioa, 634 eurokoa (14 paga), 445,2 €-koa izango da.

**Aseguru-artekariak garenez, badakigu zenbat, nola eta non aurreztu behar duzun gaur egungo bizi-mailari eusteko, duzun adinaren arabera.**

Aurreko mendean, **errege baten pare bizi** esaera erabiltzen zen. 40ko hamarkadan, **apaiz baten pare bizi**. Eta orain, **markes baten pare bizi** esaten dugu.

Etorkizunean ezertxo ere falta ez dakizun moduan erretiratu nahi? Korri... Pentsatu markes baten pare eta zatoz gugana.

## Ibanek errege magoei idatzitako gutuna

"Errege mago maiteak:

Hiru anaia-arreba gara, eta batzuetan kosta egiten zaigu jostailuak partekatzea, baina primeran pasatzen dugu elkarrekin baloian. Hondatuta dago, ordea, eta beste bat nahi dugu. Handia denez, bere PS4rako bideo-joko bat ere nahi du Oskarrek, eta Hektorrentzat, txikienarentzat, auto bolido batzuk. Nik, berriz, brikolaje-tailerreko zorro bat nahi dut.

Eskolan jostailuak utz ditzaten ere nahi dut, zuek bisita ezin ditzakezuen haurren artean banatzeko. Nik ere halaxe egingo dut, jostailu berriei leku egiteko. Ez ahaztu gure litxarria eta pijama beroak; hazi egin gara eta txikiak geratu zaizkigu lehengoak. Hitz ematen dizuet aurten egunero egingo ditudala etxerako lanak eta ongi portatuko naizela.

Oharra: turroi pixka bat eta esnea utziko dizkizuet egongelan."

Haiek ilusioaz arduratzen dira; gu, opariak **hezitzaileak eta kalitatekoak izateaz**. Garrantzitsua da **euren adinerako eta gaitasunerako egokiak** izatea; kontuz 3 urtetik beherakoentzako pieza txikiekin, baita bateriak dituztenekin ere. **CE marka** eduki behar dute, fabrikatzaileak, behar bezala identifikatuta egon behar duenak, EBko segurtasun-arau guztiak betetzen dituela egiaztatzen duena. Bideo-jokoetarako, kontuan hartu behar dira **PEGI arauak** ere. Erosketa **tiketa** ere **gorde behar da**, itzulketaren edo erreklamazioaren bat egin behar izanez gero, eta **jarraibideak irakurri behar dira**, aholkatu bezala.

Oso garrantzitsua da konfiantzako saltokietan erostea; aseguruetan bezala, profesionaltasun eta kalitate bermea da. Eta gogoan izan: **beherapenetan, kontsumitzailearen eskubide guztiak mantentzen dira.**



## Bulego profesionalak eta zibererasoak



**Bulego profesionalak jake.** Gure herrialdean, zibersegurtasunaren kontrako 400 eraso izaten dira hautematen dira egunero. **2017an eta 2018an, bulego profesionalak izan zituzten xede, eta ransomware eraso ugari izan zituzten.** Programa kaltegarriak dira, eta kaltetutako sistemako artxiboetarako sarbidea mugatzen dute; hackerrek erreskatea eskatzen dute, libratzearen truke. Sistema eragileko artxiboak zifratzera eta gailuak erabili ezinik uztera ere hel daitezke. Webgune askok ere izan zituzten horrelako erasoak, programa toxikoak eta phisinga.

Eraso ohikoak:

- **Nortasuna ordezkatzeta.** Profil faltsuak sortzea zure nortasunaren jabe egiteko eta informazio konfidentziala lapurtzeko edo interneten iruzur egiteko.
- **Zerbitzua ukatzen duten erasoak (DDoS).** Zerbitzarira eskaera masiboak bidalita, horren erantzun-gaitasuna saturatzen da eta erabilezin uzten da.
- **Informazio-ihesak.** Datu pertsonalen hedapena ere barne hartzen du (publikoa, askotan).

Eraso horiek **galera ekonomiko handiak** eragiten dituzte, **2,3 milioi eurotik gorakoak**, zibererasoen ondorioz. **Ospe profesionala ere galtzen da**, gainera; izan ere, **10 enpresatik 9**

**desagertu egiten dira zibererasoa izan eta 2 edo 3 urtera**, ospearen inguruko kalteak direla-eta.

### Zibererasoen kontrako aseguruak

Edozein jarduera liberalek Erantzukizun Zibileko aseguru bat eduki behar du, eta ezinbestekoa da **ziberaseguru** bat. Ezbehar baten kasuan, kalteen txosten forentse informatiko bat egiteaz arduratzen da, ondoren sistema erabat garbitzeko eta berriz ere erabiltzeko moduan uzteko.

Datuen Babesari buruzko Europako araudi berriak euren segurtasun-zirrikutuei buruzko informazioa 72 ordu baino lehen ematera behartzen ditu enpresa eta bulegoak, 20 milioi euro arte iritsi daitezkeen zigorrak jaso nahi izan ezean. Horiei aurre egiteko, hacker batek lapurtutako datuen legezko ondorioak aztertu eta babesteko sail juridiko bat jartzen dute **ziberaseguruek** bulegoaren zerbitzura.

Ospearen inguruan ere eragiten du polizak, markaren izen onari eragingo lizkiokkeen kalteak saihesten laguntzen du. **Ziberestortsio** kasuan, hori kudeatzeko eta konpontzeko gastuez arduratzen da, lapurtutako datuen ondorioz besteri eragin diezaieketen kalteez gain.

Adituak gara eta nazioko zein nazioarteko produktu onenak ditugu zure balizko arriskuak estaltzeko. Ez izan zalantzarik.

### Anekdotak

## Zure autoa tximisten kontrako Faradayen Kaiola bat da

1,3 milioi tximistak argitzen dute zerua urtero. Bakoitzak 30.000 ampere, 800.000 volt eta 8.000° zentigradu garraiatzen ditu. Badakizu zer egin ekaitz elektriko batek gidatzen harrapatzen bazaitu?

Murriztu abiadura, piztu argiak eta handitu segurtasun-tartea. Geratu ahal bezain laster. Barruan babestuta egongo zara, gurpilek autoa elektrizitatetik isolatzen baitute. Tximista batek karrozeria jotzen badu, korrontea kanpoan mantentzen du eta ez da barnean sartzen, Saiatu barruko metalezko zatia ez ukitzen.

**Prebentzio gisa:** haizetakoaren eskuilak eta argiztapena ongi mantendu. Zaindu gurpilek irudia mantentzen dezaten.



### Gomendioak

## Suhiltzaileen buruaren aholkuak Gabonetarako

*"Batzuetan, pertsonen jai hauetan hain ongi pasatzen dutenez, ahaztu egiten zaie kandelak itzaltzea".*

Kandelek agerian egon behar dute beti, eta gelatik irten edo oheratu aurretik itzali behar dituzu.

Ikuskatu ondorengo hauek:

- **Zuhaitz** artifizialek **suaren kontrako** dioen etiketa edukitzea. Zuhaitza bizirik badago, freskoa izan dadila. Bi kasuetan, berogailu, estufa edo tximiniatik urrun jarri.

- **Barruko eta kanpoko argiek** segurtasun arauak bete behar dituzte. Entxufeak eta kableak egoera onean daudela ikuskatu. Ez jarri argirik metalezko zuhaitz batean, eta oheratu aurretik itzali, beti.

- **Zure apaingarriek** suaren kontrako materialetakoak izan daitezela (ez du esan nahi erretzen ez direnik, erresistentzia handi-agoa dutela eta azkar itzaltzen direla baizik). Kontuz haur txikiekin eta erraz hausten diren apaingarriekin.

*Heart of Americako Metropolitiko Suhiltzaileen Buruen Batzordearen aholkuak dira.*

